

IRUÑEKO UDALAK ANTOLATU LEHIAKETA GUZIETAKO SARIDUNEK ESKER ONA JASO ZUTEN ATZO

Iruñeak bere artistak saritu ditu

Iruñeko udaletxeko harrera aretoa lepo bete zen atzo udalak antolaturiko lehiaketa guzietan irabazi zuten artistek euren saria nola jasotzen zuten ikusteko. Hogeita hamarren bat sari banatu zituzten, 4.095.000 pezeta denetara (163.800 libera inguru).

Asier Azpilikueta / Iruñea

IRUÑEA HIRIAK bere artistei esker ona erakutsi zien atzo udalak antolatzen dituen lehiaketen sarien banaketaren bidez. San fermin 1998 Nazioarteko XIX. Kazetaritza Lehiaketa (idatzia eta argazkia), Iruñea Artista Gazteak XV lehiaketa (eskultura, argazkigintza eta pintura), Egile Berriendako Euskarazko XIII. Literatur Lehiaketa (narrazio laburra, olerkia, bertso-paperak eta komikia), eta Gazteendako II. komiki lehiaketa. Lehenengoan izan ezik, beste guzietan nafar artista gazteak ziren protagonistak. Izan ere, nafar artistei, Iruñeko batez ere, bultzada ematea da udalaren helburua.

Abenduko zita hau ohikoa bilakatu da Iruñeko kultura lehiaketen munduan. Honek erakusten du, Javier Chourraut alkatearen hitzetan, «interesa dagoela antolatzen dutenen partetik, eta baita deiari erantzuten diotenen partetik ere».

«Kalitate maila handia» • Iruñeko udaleko ia zinegotzi guziak egon ziren sariak banatzeko lanetan. Alkateak sari bakarria entregatu zuen, euskarazko lehiaketako sari nagusiari zegokion hain zuzen. Honelaxe aritu zen Javier Chourraut lehiaketa honen izpirituaren harira: «Lehiaketa honek erakutsi du, partehartze handia eta kalitate maila altua dela medio, nafarren hizkuntza zaharraren bultzada, zeinak berpizkunde bizitzen ari den. Iruñeko udalak harrotasunez laguntzen du berpizkunde hau kulturaren bidetik». Berpizkunde honi trabak jartzen ari zaizkiola uste dutelako edo euskarazko lehiaketako saridun gehienek elastiko bera zeramatzen honako leloarekin: «Markotegi, Ermitagañan D eredia». Ermitagaña auzoan bajera batean eskolaturik dauden hamasei haurren aferaren ingurukoa zen eskaera.

Anitz izan ziren beren saria jasotzera atera zirenak (baten bat



Iruñeko Udalak antolatu lehiaketa guztietako saridunak, goian, eta Mikel Mendibil komikigilea saria jasotzen, ezkerrean.
OSKAR MONTERO

falta izan bazen ere). Euskaldunen artean inor aipatzekotan, erran daiteke Euskalerrira Irratiko esatari Reyes Illintxetak bigarren sari bat irabazi zuela *Denok gara Nekane* bere narrazio laburrarekin; Joxemi Bidadorrek, NAFARKARIA-ren kolaboratzaileak hirugarren izan zela *Kartaberkera* lanarekin; eta Mikel Mendibil komikigileak bi sari irabazi zituela.

Mikel Mendibil, sarietan trebatua

Bi aldiz atera zen jende aurrera. Bi sari jaso zituen. Bi zinegotzien eskua estutu zuen. Eta bi aldiz erakutsi zuen Ermitagañarako D eredia eskatzen zuen bere elastikoa. Mikel Mendibil Ainzua, 22 urteko komikigile iruindarrak, aurten Egile Berriendako XIII. Literatur Lehiaketaren bigarren saria eskuratu du komiki alorrean, baita Gazteendako II. Komiki Lehiaketaren lehen saria ere. Baina ez da ez Iruñeko udalaren lehiaketaren bat irabazten duen lehen aldia. Aurreko bi urteetan irabazi zuen aurten bigarren izan den lehiaketa. «Eta ez dakit duela zenbat hamazortzi urte baino gutxiagoko sari berezia irabazi nuen birritan», erran du Mikelek irrifartsu.

Mikelek Arte Ederrak egin ditu Bilbon eta heldu den urtean, otsailetik aitzina, karrera Grezian bukatuko du erasmus programari esker.

Mikel Mendibilek zaila ikusten du horrelako lehiaketei esker bizitzea. «Ez, ezin da bizi, baina laguntza bat da aurrera segitzeko. Txikitari hasi nintzen nire lanak lehiaketetan aurkezten ikastolan horretara bultzatzen gintuztelako. Sariak irabaztea motibazio bat da horrekin jarraitzeko. Alde horretatik, oso ona da lehiaketena». Komikiarena zaletasuna da berarentzat, hobya: «Egiten ditut beselako gauzak ere. Orokorrean marraztu egiten dut bai, baina orain hasi naiz gehiago animazioaren munduan. Hau zailagoa da. Komiki bat egiteko arkatx bat eta orri bat nahikoa duzu. Animazioa egiteko diru gehiago behar da».

Ondorioz, ez duzu komikigintzatik bizitzea espero. «Ez, baina batez ere egun jendeak komikiak erosten ez dituelako. Ez dut planteatu ere egiten. Xoxak ateratzeko diseinua da nire apostua. Komikiarena, artearena kaxotxan artean, gehiago da nire izpiritua asetzeko, gustorago gelditzeko. Baina horrekin ezin da bizi», Mikel Mendibil hitzetan. X

Strauss urtearen ospakizunak aurkeztu dira Vienan

■ Musikari austriarren mendeurrenak ospatuko dituzte

Efe / Viena

HELDU DEN urtarrilaren 2an emango dio Vienako udalak hasiera Strauss urteari, herriko etxearen aretoetan izango diren dantzaldiak. 1999an musikariaren omenez antolatutako ekitaldi ugarien arteko lehenengoak besterik ez dira izango dantzaldi hauek. Izan ere, datorren urtean betetzen dira ehun urte Johann Strauss konpositorea hil zenetik eta, 150 urte, berriaz, bere aita, izen bereko konpositorea hil zenetik.

Bi urteurrenak aitzakiaz hartuta, Vienako udalak 60 milioi txelin (bost milioi dolar) xahutuko ditu hiria edertu, musikaz jantzi eta itxoiten dituzten milaka bisitarientzat prestatzeko. Haultzat, urte guztian barrena dozenaka ekitaldi antolatu dituzte. Kontzertuak, operetak eta erakusketa handi eta ibiltaria dira horien artean aipagarrienak. Erakusketa hau, Vienako Historia Museoa aurkeztuko da hasiera batean eta Europako herri ezberdinetara helduko da gero.

Kontzertuetan, Strauss semearen operetarik ezagunenak emango dira. Hala ere, bere lanik sonatuena egokitzapen berriek izango dute oihartzunik handiena. Batik bat Nikolaus Harnoncourtek prestatu dituenak. Vienan ez ezik, Austriako hainbat herritan ere izango dira kontzertuak eta erakusketak urteurren hauek ospatzeko. Oraingoz, dantzaldiak, disko argitalpen berriak, lehiaketak eta kontzertuak daude aurrikusita. Austriako zenbait orkestra munduan barrena ibiliko dira Straussen balsak zabaltzen. X

Bilboko XVI. Artisautza Azokako saria Javier Gallegorentzat

Erredakzioa / Donostia

JAVIER GALLEGO zeramikagile bizkaitarrak eskuratu du Bilboko XVI. Artisautza Azokako saria. Biarteak (Bizkaiko Eskulangile Elkarte) ematen duen saria Bilboko Azokako kokaleku den Arenaleko karpant atzo goizean egindako ekitaldian jaso zuen Gallegok. Epahimaiko kideek azaldu zuten, saria «erakusgai dituen lanen distribuzio lan duagatik eta espazioaren armoniagatik» eskuratu du Javier Gallegok.

Bilboko Artisautza Azoka urtarrilaren 6a arte izango da zabalik Arenalean. Bertan, 51 eskulangileren lanak bilduko dira. X



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria